

# Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abenduak 24 / III. urtea / 107. zenbakia

Zubian Barna

Kardua eta arkumea  
Gabon-afariko 'betiko'  
jakiak direla uste bada  
ere, ez da hau aspaldiko

## Gabonak: afariz afari

menua. Nafarroako hainbat herritan ozta-ozta ospatzen zen Gabon-gaua eta Eguberria, eta frankotan gaztainak, odolkia edota taloa ziren egun aukeratuen janari goxoak. Etxe onenetan, kapoiak edo oilandak. Ondoren sartu ziren bisiguak, umerriak edota janari garesti eta hobeak. Orduko mahaiak betetzen zituzten janariak ekarri ditugu gogora, herriz herri eta afariz afariko ibilbidean.



BINGEN AMADOZ



**K**ontraesanaz jantzen da planeta urdina./ Gora ta behera poza, han henenka mina./ Gabonak heldu dira, baita Olentzero/ eta ugari dabil dendetan bezero./ Kontsumoari eman zaio garrantzi aparta/ ta alferrik gastatzen da dirutza galanta./ Ta hauxe Mendebaldean gertatzen denean/ Hegoan larri daude denbora berean./ Gibraltartik beherantza itxasoan barrena/ Europak uxatzen du behetik datorrena./ Beharrak bultzatuta dator guregana/ hirugarren mundutik ezer ez daukana./ Gizarte honetako itxurak sortzen du lilura/ esportatzen duguna, hemendik mundura./ Onetik hedatzen da telebista bidez./ Gurean ez omen da gaizki bizi inorrez./ Halere gezurra da, baita zinikoa/ gure bizimoduaz zabalduko. Hainbat mendeetako gure arbasoak/ Amerika ta Afrikan ibilitakoak/ harrapatu zituzten aberastasunak./ ta handik etorri ziren sakelak astunak./ Historiak egin gaitu gu europarrak/ harrapari ta ustelak, gizaki kaskarrak./ Zertaz harrotu baino hobe da ixiltzea/ eta burutu izanaz serio damutzea./ Hemen, han bezalatsu gerra da nagusi/ ta gertatutakoaz ez dugu ikasi./ Mende honetan zehar krunelkeri ugari/ izan dira gurean segika hariari./ Bosnia ta Herzeegovinan beltza da negua./ han ez-paita argia oraingo kontua./ Hemen goa bezain txuri da hango elurra/ ta goitik behera dator esaltzera lurra./ Han ordea gorritu egiten da laister/ odola ikusten baita bazterretan bazter./ Euskalerrira etorri gaitzen azkenik/ intsumiso gazteak buruan ditut nik./ Agintari ta juezak lasai al zarete?/ Ez duzue sumatzen egingadako kalte?/ Zuentzako bada gaur turroi ta okela/ intsumisoentzako hotza da kartzela./ Armen kontra dagonak zigorra merezi?/ Nun duzue burua, nun zarete bizi?/ Intsumisoentzako nere anaitasuna./ Zuen ausardia da gure harrotasuna./ Bihar Eguberri ta gaur dugu Gabona./ Haien bide da okerra ta zuena ona.



## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Lola del Castillo** artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Pintzel Galerian, Abejeras kalean. 'Entre dos luces' izeneko erakusketa urtarrilaren 7a arte iraunen du. Asteleheneetik ostiralera irekitzen dute, goizean 10.00etatik 13.30etara, eta arratsaldetan 16.30etatik 20.00etara.

**Jesus Muniain** eta Alberto Sanz artisten erakusketa zabalik dago Zizur Nagusiko Kultur Etxean urtarrilaren 6a arte. Keramika, Eskultura eta Muralak ikus daitezke. Ordutegia hauexek izango da: lan egunetan, arratsaldeko 19.00etatik 20.30etara, eta jai egunetan, goizeko 12.30etatik 14.00etara.

### ANTZERKIA



'**El medico a palos**' izeneko antzezlanak aurkeztuko du Quezta taldeak hurrengo astean Oibarren. Arratsaldeko 20.30etan hasita, abenduaren 29an izango da, eskoletako ekitaldi aretoan. Sarrera dohainik.

'**La noche magica del bosque**' izeneko obra antzeztuko du heldu den astelehenean, abenduak 27, Pengim Penjam taldeak Tafallan. Haurrendako prestakua, 18.00etan hasiko da udaleko ekitaldi aretoan. Ordu berean, baina asteartean, 'A bombo y platillo' izeneko lana antzeztuko du Trokolo taldeak, eta asteazkenean, Kollins Klown taldeak 'Bienvenidos al oeste' izeneko lana taularatuko du.

'**La barca sin pescador**' izeneko obra antzeztuko du Mendi taldeak heldu astelehenean, abenduak 27, Mendabian. Herriko Eskola Publikoaren aretoan izango da eta bi saio antolatuko dituzte.

### ZINEMA




'**Mickey christmas carol**' izeneko pelikularekin hasiko da Nafarroako Museoak heldu den asterako antolatutako haurrendako zinema zikloa. Aipatutakoa eta 'Printzea eta eskalea' izeneko astelehenean botako dituzte; asteartean, 'Mac nire laguna' eskainiko dute; asteazkenean, Warner Bros Cartoons izenburupean zazpi laburmetrai; ostegunean 'Cuenta conmigo' izeneko pelikula izango da ikusgai, eta ostiralean, 'Happy Harmonies' izeneko eskainiko dute. Guztiak, goizeko 11.30etan hasiko dira. Sarrera dohainik.

## Errezu-Aritzaleta

Errezu eta Aritzaleta Deierriko herriak dira eta Lezaun herri independentea. Hiruak daude Andimendiko magalean, kontraste eta ikusgarritasun handiko zonaldean, hain zuzen ere. Pagoak Trinidad mendiko lainoen artean jeisten dira, eta nahasten dira frankotan arteak eta ametzekin. Lezaun eta Deierriko bi herri horien artean dago latxa eta txurak ardi arrazen arteko bereizkuntza: Lezaunen latxak daude, eta besteetan txurak.

Ibilbidea Errezutik Iruñe hirera daraman bidetik ateratzen da. Errezutik bertatik aterata, eta zubia zeharkatu ondoren, bideari jarraiki, Errezuko iturburura helduko gara. Hor sortzen dira Errezu, Arteta eta Urederrako iturburuak, Urbasa eta Andiamendiko iturri nagusiak. Gora-behera handiko jarioan, udan oso urri dira kopuruak, eta neguan, oparoak. Gogoratu behar da Urbasa-Andiamendik bildu dezakeen ur kopurua Esako urtegiaren bikoitza dela: 1.200 Hm<sup>3</sup>, hain zuzen ere.

Errezu, Arteta eta Urederrako iturburu honek 1.500 litro segunduko botatzen ditu, batz



beste, eta Erbiozko amildegipean sortzen da, herritik kilometro eskasera.

Hortik aurrera ameztietan sartzen gara. Hau da ibilbide osoan nagusi den landaretza, baina arteak ere ugari dira, lurra eskasa baita. Ezpelak ere franko azaltzen dira bidean zehar, batez ere Lezaun eta Aritzaleta bitarteko basoan, baina hobeki kontserbaturik dago Lezaungo. Bidetik aldendu gabe Lezaunera helduko gara. Aritza-

letara daraman bide zaharretik, berriró ameztietan murgilduko gara, eta zenbait langa gaingitu ondoren, Aritzaleta herrira helduko.

Herri inguruan zelaiak eta larreak dira nagusi, eta horien artean helduko gara berriz ere Errezura eramango gaituen bide zaharrera. Olibondo berde sakonak inguratuko gaitu hasierako puntura heldu arte. Landaretza arteko ibilbide bikaina.

### ASTEKO PERTSONAIAK



**Pedro Mari Zabala**  
Osasunako entrenatzaile ohia

Ez da sorpresa handia izan, azken aste hauetako emaitzak ikusi eta gero, apostua zen noiz arte iraungo zuen Zabalak entrenatzaile postuan. Eta igandeko desastrearen ostean, ikusleen haserre nabaria ikusi eta gero, Zabalak berak aurkeztu zuen dimisioa. Astelehenean ofiziala egin zuten, eta hemendik aurrera Enrique Martin jokalaria ohia izango da Osasunako entrenatzailea. Ezkurra presidentek garbi utzi zuen publikoaren erantzunak izan duela garrantzia azken erabakia hartzerakoan, eta Zabala bera goibel eta triste agertu zen komunikabideen aurrean. «Hauek dira Osasunaren eman dituzten unerik tristeenak, eta tamalez, orain esan behar dut agur» esan zuen. Hala ere, itxaropentsu agertu zen etorkizunari begira.



**Txemi Gorostiza**  
Abokatua

Hamar hilabete kartzelan eman ondoren, orain dela aste pare bat askatu zuten Txemi Gorostiza AABTko abokatua. Epaileak erabaki zuen orduan Alcalá-Mecoko espetxean egindako grabazioak legez kanpokoak zirela. Herenegun, ordea, Entzutegi Nazionalako fiskalak errekurtsioa aurkeztu zuen, grabazioak legez kanpokoak izan diren ebazpena ezeztatzeko. Bere ustez, ez da ETako preso eta hauen abokatuaren arteko elkarrizketaren grabazioan inolako eskubide konstituzionalik hautsi. Entzutegi Nazionalak errekurtsio hau aintzat hartzen duen ebatzi beharko du lehenik, gero epailetaren data jartzeko. Gorostizaren abokatuak adierazi zuen defentsaren argumendazioa onartua izan dela Entzutegi Nazionalen, eta pozik zegoela.



**Bernardo Atxaga**  
Idazlea

Idazle astesuarra aurkeztu zuen atzo Iruñeko Iruña kafetegian 'Gizona bere bakardadean' bere liburu berria. Pamielarekin berriró ere, 'Behi euskaldun baten memoriak' eleberraren arrakastaren ondorekin, Atxaga preziatuak kaleratu du bere azken gogoeta. Futbol Txapelketa baten garaian, Bartzelonan biltzen diren lagunaren arteko solasaldiak dakartzala liburuak, eta haiek bizitako garaiak jorratu eta buelta ematen zaizkie bertan. Txema Aranaz Pamielakoaren esanetan, «Atxagaren garaiko askok gure garaian ispilua ikusiko dugu liburu honetan, nahiz eta Euskal Herrikan kanpo akaso ez den oso ongi ulertuko». Gabonetarako irakurgai aparta, beraz, izango dugu eskuartearen. Azkenean, agindu bezala, urtea amaitu aurretik kaleratu da liburuak.

### AHAZTU GABE!

**ZANGOZAKO** udalak antolatua, ekitaldi ugari izanen dira egun hauean hirian, haur, gazte eta helduentzat. Abendu osoan erakusketak, mintzaldirak, eta musika kontzertuak eskaini dituzte. Gaur, nola ez, Olentzeroa aterako da, arratsaldeko 19.30etan, eta herriko kaleak zeharkatuko ditu. Bestalde, heldu den asteazkenean, abenduak 29, Nora Abesbatzaren kontzertua dago, udalaren aretoan, arratsaldeko 20.30etan hasita. Bertan, Gabonetako kanta bereziak abestuko dituzte Nora abesbatzeko kideek.

Heldu den astean, haurrendako zinema zikloa antolatuko dute, herriko haur guztiak oporretan daudela aprobetxatuz. Astelehenean hasiko da, abenduak 27, 'La bella y la bestia' pelikula ospetsuarekin. Asteartean, 'El libro de la selva' eskainiko dute, asteazkenean 'Peter Pan', ostegunean 'Hook' eta ostiralean 'Beethoven' izenekoak. Guztiak Zangozako Kultur Etxeko ekitaldi aretoan izango dira, arratsaldean.

Zangozako jubilatuentzat ere prestatu dute jaialdi bat, astearte arratsaldean hain zuzen, beren Elkartearen egingo dena. Bertan, musika, dantzak, eta beste ekitaldi batzuk izanen dira.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

**ARALAR** argitaletxeko Josu Etxebeste elkarrizketatuko dute Euskalerrira Irratian heldu den asteartean, abenduak 28, 'Zokobetailu' saioan. Goizeko hamarretatik aurrera hasiko den saioan, argitaletxearen ordezkaria liburu promozio berriaren kanpainaz eta Durangoko Azokara eramane zizutzen liburuei buruz ariko da, Iruñean egun hauetan aurkeztuko baitituzte.





Tutera

### Barazki eta Fruten Zentroa inauguratu da

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Tuterako Barazki eta Fruten Zentroa inauguratu zuen asteazkenean Juan Cruz Alli lehendakariak, nekazaritza erakundeko hainbat ordezkariarekin batera. Zentro honek 421 milioi pezeta-kostua izan du, eta Nekazaritza Kudeaketarako Institutu Teknikoak bultzatutakoa izan da, nahiz eta Nafarroako Gobernuak bere jabetza izan. Bertan gure lurraldeko Erriberan eta Erdialdean ekoizten diren fruta eta barazkiak jaso, elaboratu eta komertzializatu egingo dira, eta horren bidez lurretik atera eta kontsumitzaileengana heldu bitarteko bide hauek hobetzea da helburua, kontuan harturik kooperatibek alor honetan duten garrantzia.

29.900 metro koadroko zabalera dauka Las Labradas industriegunean dagoen zentro honek, eta produktuak elaboratzeko erabiliko diren bi plantek 4.600 metro koadro. Tegi nagusian zortzi hozkailu erraldoi izango dira, bakoitzak 160.000 kilo produktu gordetzeko ahalmenarekin.

1992an sinatu zen hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Kooperatiben Batasunari eman zion zentroaren kudeaketa, eta bertan bilduko dira Andosilla, Argetas, Barasoain, Kabanillas, Kaparrosa, Karkar, Zarrakaztelu, Kaskante, Kastejon, Kortez, Larraga, Lodosa, Miranda-Arga, Iruñea,



Zentru berrian produktu gehienak komertzializatuko dira.

Azkoien, Pitillas, Arrada, Sesma, Tutera, Balterra eta Hiriberriko kooperatibak. Hauei gehitu behar zaie Errioxako Alfaro kooperatiba, eta beste lauek eskatu dute dagoeneko zentroan sartzea.

Aurrikuspenen arabera, 1994eko ekaina bitarte, 41.360 tona barazki komertzializatuko

dira, eta 15.830 tona fruta. Data horretatik aurrera, zenbakiak % 20 gehituko dira, institutuaren arabera.

#### Bera

**Txotxongiloa: munduaren interpretazio bat**

JON ABRIL / BERA

Ez da askotan ikusten On Kixote, Aspavento Kapitaina edo oihaneko korrikolaria, Ana Belen, In Novis eta Luis Delgadoren ahots eta musikekin dantzan. Sevillako PATO (Antzerki Ekintza Originalen Sustatzailea) taldeak guztiak batu eta Teatrino erakusketa sortu du. Horrela, 65 txotxongiloen materiala, mugimendu motak eta ahots ezberdinak erakutsi dizkigute Marta Llanez, Manuel Garrido eta Fernando Del Moralek, joan den azaroaren 29tik abenduaren 5era Berako Kultur Etxean.

Paper pastaz, zurez, latexez, falla kartoiak edo gomaespumaz eginiko panpin hauei bizia emanez, barilaz, eskularruz edo hariz mugitzeko duten ahalmena azaldu dute garbi. Arrakastatu izan da oso erakusketa, eta egia esan ez da gutxiagorako, Otello Sarzi maisu italiarraren lanek eta Espainiako zein Asia urruneko txotxongiloek edozein ikusle aho zabalik utzi baitezakete eta arte-lan bilakatuz, atzean horrelako aktore bikainak izanez gero.

#### Mendigorria

### Batzar orokorra egingo du ANAT-LANE talde ekologistak

IRUNEA

ANAT-LANE talde ekologistak Mendigorriako IV. Aste Ekologista antolatuko du heldu den asterako, diapositiba emanaldiak, mintzaldiak eta ikastaro praktikoekin. Ez da urte erraza izan taldearendako, lokalik ez izateak oztopo franko paratu baitio bere jarduerari, baina ingurugiroa babesteko ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoari «uko egin ez» diotela azaldu dute, eta horregatik antolatuko dute aste ekologista hau.

Ekintzak heldu den igandean, hilak 26, hasiko dira, Ipar eta Hegoaren arteko gaur egungo desberdintasunak gaiari helduta. Horretarako diapositibak izanen dira ikusgai arratsaldeko seieta-tik aurrera Udal Aretoan, eta Indian laguntza eskaintzen arituko den talde baten eskutik. Astelehenean, hilak 27, taldearen batzar orokorra bilduko da, 1994erako

ekitaldia prestatzeko. Bertan jorratuko dira aurrikuspenak eta ikuspuntu berriak, eta egutegia zehaztuko da. Bilerak Liburutegi Zaharrean izango da, 20.00etan. Asteazkenean, 'Eguneroko ekologia' lema duen mintzaldia eskainiko dute Ostadar Elkarteko Lourdes Garcia eta Cristina Alfonso Ingurugiro Hezkuntza monitoriek. Energia aurrezteko teknikak eta arazo praktikoak azalduko dituzte, eta Liburutegian izanen da, arratsaldeko bostetatik aurrera. Hurrengo egunean, asteazkenean, herriko gazteendako paper birziklatua egiteko tailerra antolatuko da, eta horretarako aurretik bildutako paperak erabiliko dira. Ostegunean, hondakin horiekin jostailu eta irudiak osatuko dira, eta igandean, 'Alaska, azken muga' diapositiba emanaldia eskainiko du Xabier Goñi Nafarroako Mendizale Federazioakoak. Udal aretoan izango da, arratsaldeko seieta.



**BAZTAN**go 27 baserrik astelehenean badute telefonoa, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Telefonika enpresak sinatutako hitzarmenari esker. Telefono berriak Arizkun, Aintzialde, Almandoz, Azpilkueta (Apaioa, Arribiltoa eta Urrasun), Berroeta, Zozaiia, Erratzu, Gorostapalo, Gartzain, Irurita eta Ziguarrren daude, eta horretarako 823 milioi pezeta gastatu behar izan dira. Teknika berri eta modernoak erabili dira telefono berriak paratzeko, eta Joaquin Gonzalez Telefonikako ordezkariak azaldu zuenez, hiru urte eman behar izan dituzte teknika zaharrek 12 edo 15 urte behar zituen lortzeko. Teknika honi esker, ez dira posteak edo kableak luzatu behar, eta Gorramendi mendian dagoen Otararte errepideak igortzen duen seinalearen bidez lortzen da komunikazioa. Etxe bakoitzean seinalea ongi jasotzeko aparagailua dauka, eta horrek, era berean, seinalea bidaltzen dio telefonoari.

# KULTUR ZIKLOA

## L 93 A

### MALERREKA

**ABENDUAK 27, ASTELEHENA**  
DONAMARIA • Poniak eta basurdeak  
URROTZ • Bazkaria trikitixarekin alaitua

SALDIAS  
Berako "Gure Txokoa" eta Doneztebeko Dantzari Gazteak  
ZUBIETA  
Mañu Elizondo magoaren saioa

**ABENDUAK 28, ASTEARTEA**  
ITUREN  
Mahai ingurua: "Kontu zaharrak, kontrabandua, haziendak..."  
DONEZTEBE  
"Karlidadaren Kronika" filmaren emanaldia

**ABENDUAK 29, ASTEAZKENA**  
SUNBILLA  
Diapositibak: "Mendia eta eskalada"  
Xabier Muguruza eta Jean Louis Hargeuse-ren kantaldia



Nafarroako  
Gobernuak








IRUNEA

Ez zen, ez, nolana hiko **Allin-Etxebarriko** Gabon-gaueko afaria: kardua, Erribera osoan eta Lizarrerriko hainbat herritan bezalatsu, eta baita bisigua, konpota, eta Leringo turroiak ere. Egun hain preziatua eta garestia den arrain aparta prestatzeko piper gorri lehorrak erabiltzen ziren, eta saltsan egiten zen ia beti, lurrezko pototan. Halaber, saltsa ogi puxkekin egiten zen, lodi zedin. Postrea Lerin eta Lizarrako turroiak ziren: kakahueteak edo almendrak eztiarekin gogortuta. Urtrirlean jaiotako kapoiak prestatzen ziren orduan, horiek baitziren, nonbait, onenak, eta Lizarrako kokoi-turroia jaten zen. Horrekin batera, oilandsalda eta entsalada. Edateko, etxeko ardoa, gehienetan, eta ardo goxoa, txanpaina ez baitzen oraindik ezagutzen. Kafearrekin, anisa eta koñaka. Postrea ere famatua zen: 'zopa cana', hau da, oilaskoren gilborraz egindako salda lodia. Horri eransten zitzaion esnea eta kanela. Eguberriean, bezperako soberak. Arku-meren arrastorik ez.

Antzematen da garbi garai haiek, orain ez bezala, askoz ere latzagoak zirela, eta toki askotan ez zen aparteko ospakizunik egiten mahaiaren inguruan, nahiz eta bildu, beti ere bildu etxean. Basaburuko **Etxalekun**, kasu, ia gauza berria da afari oparoa egiteko ohitura, eta soilik Eguberriko bazkarian axurikia zen ospakizuna. **Aezkoan** ere antzera gertatzen zen. Zaharrenek gogoratzen dutenez, gauza gutti zegoen orduan afari dotorea egiteko, eta aza, odolkiak eta taloa zen orduko menua. Postrerako gaztainak. Baina dena gutti. Zenbait etxetan oiloa edo haragi zopa egiten zen, eta baita ardiki zopa ere. Horretarako ere ez zeukatek zopa erreata prestatzen zuten: ogia, arraultzak eta zopa, dena nahasturik, eta gero erre edo xigortuta. Halaber, txerri hankak edo belarriak jateko ohitura zegoen, bai tomatean egosita edo irina eta ogi xehetuz igurtziak. Geroago sartu zen bakailao jateko ohitura eta konpota, hau da,



etxe eta karrizak karrizak koplak kantatzen. Gaur egun, oraindik ere, koplak aditzen dira, nahiz eta zenbait desitxuraturuta izan:

*Berrus karronatus es Maria beti birjinie Maria birjinaganik*

*Kristo xin da mundura gure erreskatatzaera disponigitzen kristionak Jesusen adoratzera*

*adoratu zuten Jesus Jaingoikoa eta gizon eginik*

*Joxe txatarrak berotzen Maria tximua hedatzen ordu hortan ari omen ziren seme on baten troxatzen seme on baten troxatzen eta Jesukristoren bestizien*

Aldiz, Gabon-Zaharra ez zen ospatzen Zaraitza ibarrean, berria baita bertan ohitura. Olentze-

**G**abon-afaria askorendako munduko gauza zaharrenek ere badira oraindik beren gazte garaian ospatu ez zuten asko. Egungo kardua arkumea, hala ere, ez ziren gauza ezagunak Nafarroako toki frankotan. Horretaz gainera, horretaz gainera, aspaldiko eta gaurko ohiturak. Alberto Barandiaran, Hurgogoa, Izaskun Ibarra, Txaroga, Satrustegi eta Juantxo Urdiroz aritu dira informazio bila.


# Gabon-afaria, bes-afaria

roa, halaber, atzoko gauza da, eta atera, ateratzen da, baina hilaren 28an. Otsagiko patrioaren egunean, hain zuzen ere.

Gabon-gaueko afari oparoak nahiko berriak dira Sakana aldean, bizimodu latza eta zaila baitzen ordukoa, eta gehienek ez zuten diru nahikoa janari berezietan gastatzeko. **Arruazun**, adibidez, aprobetxatzen zen Gabonetako astea txerria, ardia edo ahuntza hiltzeko, eta Gabongauerako gordetzen ziren zati goxoak. Etxeko oiloak edo oilaskoak ere sarritan erabiltzen ziren egun horretan. Hasteko, 'zopa handia' jaten zuten, hau da, ardi edo txerrikume tripotak saldan egosita, eta gilbor eta ogiarekin loditurik. Ondoren, tripotxak edo tripota eta aipatutako haragia. Postrerako, orain egiten den bezala, konpota ezinbestekoa zen. Berarekin batera, turroi puskaren bat ere ez zen falta. Egun, ohiturak aldatu dira, eta konpota eta tripotxak jatea normala bada ere, arrain zopa, beste entremesak, arrain garestiagoak eta umerria ere jaten da etxe gehienetan. Turroiak ez du hutsik egiten, baina beste postre goxo batzuk ere prestatzen dira.

Aldi berean, bada bertan Gabon gauean egiten den beste ohitura bat, suarekin zerikusia duena. Arruazuko etxe gehienetan, iluntzen duenean, eta afaria prestatzen duten bitartean, etxetik kanpo dauden senideen omezezko egurrak sartzen dituzte sura etxekoandreek. Lehendabizikoa, Familia Santuaren omenez sartzen da, eta gero, kanpoan bizi diren senide bakoitzarendako egur bana. Batzuek diote familian hil direnen omenezko egurrak ere sartzen zirela.

**Altsasun** ere ez zen berezitasun handiz ospatzen Gabon-afaria, eta soilik turroi puxkak edo mazapanak dituzte gogoan ordukoek. Altsasun bertan egindakoak, kakahueteak, almendrak edo hurrak erabiltzen ziren horretarako, eztiarekin nahastuta. Aza zen orduko janaririk ohikoena, baina orduan hasi zen Erriberako kardua ekartzen, eta baita antxumea ere. Konpota ere ez zen falta, eta urte onenetan etxeko kapoia hiltzen zen afaltzeko. Hazitzeko modu franko bitxia kontatu digu altsasuar batek. «Saskitxo baten azpian jartzen zen kapoia, eta gainean harri bat, ez mugitzeko. Hor edukitzen zen, besteengandik aparte, eta horrela loditzen zen». Etxe onenetan, oilanda prestatzen zen,



preziatuagoa baitzen, eta baita bisigua edota txipiroiak ere. Kantatzeko ohitura ere ez zen falta, eta orduan biltzen ziren konpota egiteko pikuak, aranak eta sagarrak.

Kardua da, betidanik, **Lizarrako** etxe gehienetan Gabon gauean jaten dutena. Lehengo garietan edozeinek lor zezakeen gauza zen, baratza guztietan baitzegoen. Karduaekin batera jaten zutena, ordea, asko aldatzen zen etxe batzuetatik besteetara, norberareh egoera ekonomikoaren arabera, noski. Normalean, eskarola, kardua eta oilaskoa ziren menu zabalduenak, eta oilaskoaren ordez txuntxa ere jartzen zen. Postrerako, bertako turroia ez zen falta, hori bai, «pare bat tableta jai guztietarako», kasu askotan.

Orain, karduaekin batera

lehenik aperitifa osorik hartu beharra dago Ricard, Porto edo whiskyaz lagundutako pistatxo eta jakibitarkeoekin. Ondoren *foie-gras*, urdaiazpiko eta eskualdeko jaki goxo eta garestiak. Bigarren plateretan aldiz, arku-meia edo arraina hartzeko ohitura dago. Nagusi adituak diokunez, «azken alditan jendeak geroz eta gehiago jan ohi du arraina haragia baino lehen». Bisigua eta mota horretan arrain garestiak atzematen saiatzen da jendea. Bigarren platerako ohiturazko jakia izaten da hegaztia.

Desertarako, berriz, «ondoko dendan erositako pastisa» jan ohi du jendeak. Afaria janariaren araberako arnoarekin bustiko dute baxenabartarrek, «baina Bordenaux on bat, beti ongi etorria da janari guztiekin». Txanpainak, berriz, bere xarma galdu omen du. «Lehen noizbehin dastatzen genuen txanpaina, orain berriz edozein okaxionetan txanpaina edaten dugu». Hala ere, etxeko jakiak omen dira hobereak gaur egun ere. «Gazteak ginelarik etxeko oilasko hobereana edo untxia jaten genuen Eguberrietan, baratzako patata edo tomate gorri gorriekin. Oraingo diru xahutzeak alferrikakoak dira, berdin edo hobeki jan baitaiteke etxeko jakiekin». Orduko deserta ere ongi oroitzen du nagusiak. «Amatxi Erreposka egiten zaukun. Esnea bero-bero ezarrita, artoz egindako irina bertan sartu eta sekulako deserta goxoa jaten genuen etxean».


**Lesakan**, beste hainbeste tokitan bezala, garaiek markatzen zuten afaria eta ospakizuna, eta gehienetan, gaur egungo amatxiak gaztainak eta, «zegoe-nean», odolki gogoratzen dute. Edateko, sagardoa. Geroago bakailao sartu zen eta arroz-esnea. Halaber, nahiko zabaldua zegoen azalorea jateko ohitura, eta konpota ere ezinbestekoa zen, gaur egun bezala. Txerribodan aritzen zirenek txerriak hartzen zuten, eta bildotsa ez zen hartzen, saltzeko erabiltzen baitzen. Ondoren sartu zen bisigua, baina gaur egungo prezioek atzera bota dute asko. Bertan, ezaguna denez, Olentzeroa betidanik izan da, eta gaur egun indar handiz dirau.

Bereziki izan dira, orobat, toki batean jaito eta bestean hazi edo bizi izan dituztenen gogorpenak. Horra zer aipatzen duen **Eugiko** Etxeberriko bordan sortua eta **Markalaingo** Balentinera ezkondua den Mariaxixile Perez Iribarrenek. «Eugin lehenago ez zen entremesik ia ere jaten. Jaten zen zopa, ardi zaharra hiltzen zen eta egiten zen zopa ardi zahararekin, eta gero bisizara eta jaitoan baitzen Iruñera bezperan. Bertzenaz ardi zahararekin odolarekin egiten zen tripota beltza, eta gero jaten zen bi oilasko, bi kazuelaren erdian, eta gero trepetian egiten zen oilaskoa, rekoziturik. Aita joaten zen Iruñera bezperan eta ematen zuten turrina, eta inguruz inguru

paratu familia mahaian, eta bakoitzak bere puxka, bere neurri, denek igual. Gero bertze egunez ez zen bat ere, ondoko egunetan ez zen jaten kolaziorik».

Markalainen egonda, ordea, jaki berriak agertzen dira. «Lehenik entsalda on bat eta gero kardua. Eugin sekulan, harik eta hona etorri artio ez nuen ezagutzen hori. Gero jaten zen arraina, eta jaten zen oilasko, eta adanak sekaturik, eta melokotoiak, azalak. Hemen kolazioa Eguberriean beti zegoen, Eguberri bezpera eta Urteberrietan eta Erregeetan beti bazen partitzeko. Hala pasten gintuen, denak etxean. Bertzenaz erraten ziguten, 'zato fite etxera', gaur labisako anuntzioetan gisa». Markalainen bertan ez zen Olentzerorik ezagutzen, baina Erregeetan gazte guztiak ateratzen ziren kalera zintzarri modukoak gerrikotik zintzilik, oihuka.

**Leitzan**, aldiz, etxe gehienetan ez zen ospakizunik Gabongauetan, eta askotan ez zen ezta familia ere biltzen, etxeko lanak zirela eta. Horretarako eguna Eguberria zen, bazkarian. Nolanahi ere, garai hobekak etorri zi-



renean kapoia jaten zen etxe gehienetan, eta ganborrarekin egindako zopa ere. Beranduago sartu zen axuri erreata eta bisigua,

baina oilaskoa oraindik ere oso preziatua zen. Azken urteetakoak dira txitxarroa eta kokotxak.



# Nafarkariako afarian giro aparta

Bigarren urtebetetzearan afaria egin zuen Nafarkariak joan den asteo ostegunean, Zaldiko Maldiko Elkartearen, kolaboratzaile, laguntzaile eta lagun askorekin. Laz bezala, urtean behin biltzea eta urtean zehar egindako lana eskertzeaz gain, EGUNKARIAK eta Nafarkariak heldu den urterako dituzten proiektuen berri ematea zen helburua. Horretarako hurbildu zen Iruñera Martxo Otamendi zuzendaria, Strasburgetik heldu berria.


Elkar ezagutzeko gutxi falta bazen ere, izan ziren aurkezpenak eta ongietorriak, Luxia Goñik prestatutako afari goxoaren esperoan. Entremesekin batera lehendabiziko solasaldiak hasi ziren, eta mahaiaren mutur ba-

kin batera heldu zen mintzaldien orduan, eta Otamendik Iasser Arafati prentsaurreko batean egin zion galdera harro-harro aipatu ondoren, EGUNKARIAREN berrikuntzak eta Eusko Jauriari-tzaren negoziaketaren egoera azaldu zuten. Nafarkariaren aldaketak ere izan ziren aipagai, eta ondoren heldu zen galderen txanda. EGUNKARIA potoloago eta estandarrago egitea izan zen eztabaidagai, eta batzuk oraingo tamainari eustearen alde azaldu ziren.

Handik kanpo jada, bizitza eta gaua izan zen aipagai, baita morrontza eta boterea ere. Ordu txikiak harrapatu zituzten asko taberna zaratatsuetan, euskaldunen izateaz eta izakeraz bero-bero solasean. Ez da azken aldia izango.



## Gazteendako Zokoa



Euskadiko Taldekako Xake Txapelketako seigarren jardunaldiko partida. 1993ko abenduaren 19an jokatu.

Fernando Fernandez de Aranguiz, 2.015 ELOkoa (Gasteizko San Viator)—Iñaki Arrizibita, 1.600 ELOkoa (Iruñeko Arrano Elkarte).

1.Zf3,Zc6; 2.d4,d5; 3.e3,Af5; 4.c4,e6; 5.Da4,Zf6. Hobe zen 'gZ-e7'. 6.Ze5,Ab4 xa; 7.Ad2, Ad2 xa; 8.Zd2,0-0; 9.Zc6,Dd7; 10.Zf3,Dc6; 11.Dc6,c6; 12. Ze5,fG-b8; 13.b3,c4; 14.Ac4, Gb6; 15.f3,h6.

Denbora galtzea da. Alfilarantzako zulo hori txarra da. Ag6 joka daiteke lasai lasai, ordea, gero. Eta orain, Gd8. 16.Ef2,Ef8; 17.g4, Ah7; 18.h4, Ee7; 19.aG-c1,Zd7; 20.hG-d1,a5; 21.a3,f6; 22.Zd7,Ed7; 23.e4,f5; 24.Ee3,Gf8; 25.g-f5,f5; 26.d5,c5; 27.e5. Eraso-korrakoak dira txuriak. Piezak hobeto kokaturik dituzte. 27)...f4 xa; 28.Ed2,Gf5.

Posizioa ez zegoen erraza. Baina jokaldi honek partida galtzea ekarriko du. Ikus koardoa. 29.Ad3,Ge5; 30.Ah7,g6; 31.Ec3,Ee7; 32.Ge1,Ge3 xa; 33.Ge3,Gf6; 34.Ge1,Ef7; 35.Ge3,Gf6; 36.Ec4,Eg7; 37.Ge7 xa,Gf7; 38.Gf7 xa,Ef7.

Beltzak galduta daude. Alfilara jaten dutenerako beranduegi izanen da. 39.Ec5,Eg7; 40.Ec6, Eh7; 41.Ec7. Besterik gabe, partida amaitu zen, eta txuriek puntua eraman zuten.

## Grunge musika: Seattleko soinua

AINARA FERNANDEZ

Orain dela bi urte baserri batera euskara hobetzeko asmoz joan nintzen uda osoa pasatzera. Egun eguzkitsua zen, oroitzen naiz oso ondo herriko autobus geltoki zaharreko banku batean eserita nengoela ezezagun baten zai. Baserriko gizona edota seme zaharrena nere bila etorriko zela neukan buruan. Geltokiko atea irekitzen zen bakoitzean, zertxobait sentitzen nuen nere sabelean, eta hori bat, gero eta gehiago, nekatzen hasia bainintzen hainbeste itxoiteaz. Bapatean gazte bat hurbildu eta kortesia handiz galdetu zidan:

—Barkatu andereño, zure izena Maialen Garoa al da?

—Bai, ni naiz. Baserriko jaunen semea haiz?

—Ez, baserrian Joxefa andereñoa bizi da, bakarrik. Ni Peio naiz, herriko postaria, Joxefaren lagunmina.

«Ai ene!—pentsatzen nioan baserriko bide zatarretik— Zer nolako baserria izanen da hau! Noizdanik emakume bakar batek baserriko lan guztiak egiten ditu? Atso horietako bat izanen da?»

Bidea luzea izan arren, nahiko abudo iritsi ginen. Peio mutil jatorra iruditu zitzaidan. Joxepa aurkeztu eta gerò herrira joan zen, berandu baitzen. Joxepa 80ren bat urte izango zuen, emakume pottoloa zen eta itxura atsegina zeukan.

—Barkatu —goizean, kafea hartzen galdetzen hasi nintzaion; ailegatu nintzenetik hilabete bat pasata ze-

goen jadanik— Orain arte ez naiz ausartu galdera hau egitera, baina... Nola da zu hemen bakarrik bizitzea? Baserri honetan urte pila zeramala esan zenidan, nola eramaten zenuen orain dela 40 urte hau dena zuk bakarrik?

—Neska jatorra zara, Maialen. Ez diot hau inori kontatu, baina zuri bai, kontatuko dizut.

—Mesedez,...galdera inozo bat besterik ez...

—Ez, lasai, gogoak ditut dena botatzeko. Ordua da.

Nahiz eta sinestezin iruditu, ez-konduta nengoen, edo nago esan beharko nuke, baina orain dela berrogei urtetik hona bakarrik bizi naiz. Hiru seme-alaba ditut, bi alaba eta seme bat, eta orain dela berrogei urte ez ditut ikusten.

—Joxepa! eta zer dela eta...?

—Lasai, aurrera noa. Urte horietan oso emakume gaiztoa nintzen, dena neretzako nahi nuen...

—Diruzale, berekoia...— andrea- ren begietan hitz zehatza ez zuela aurkitzen ikusi nuen eta laguntza ematen saiatu nintzen.

—Bai, hori bera: nerekoia. Nere senarrarekin ezkontzearen arrazoi bakarra baserria izan zen, badakizu, beste garai bat zen, nere gurasoek ez zuten asko eta... Ezkontzaren ondorioz nere Ferminek seme bat nahi zuen. Bat izan, eta neska. Bigarrena, eta neska ere bai. Baina Ferminek mutila nahi zuen. Jainkoari esker hirugarrenean Juan jaio zen.

Senarrari eta seme-alabei bizkarra

eman nien beti, herrira jeisten nintzen egun guztiak eta gaez baserria itzuli; eta noski, garai horietan hori pekatua zen, badakizu. Baina neri berdin zitzaidan, ongi pasatu nahi nuen nere lagunekin eta baserria gainera aspergarria zen, lan ta lan egun osoan... Hogei urtez iraun zuen egoera honek. Berrogeitabat urte eta hiru hilabete nituenean, Fermin, Juan, Miren eta Aranzazu joan ziren, ni hemen bakarrik utzita.

Irribarre gozo bat bota zidan, nere ahoa zabal-zabalik baitzegoen.

—Eta hori da dena, gazte. Horra hor nere istorioa. Ezetz inoiz horrelakorik aditu?

—Benetan ezetz. Nahiko gogorra izango zen...

—Bai, baina hori jainkoaren zigor bat besterik ez zen izan, merezi nuen. Haiengatik sentitzen dut, baina gauero otoitz egiten dut nere semeak sendo eta arazorik gabe hazteko. Zuk pentsa, zaharrenak berrogei urte izango ditu.

Bere aurpegi goibelean bakarrik egoteko nahia somatu eta menditik bueltatxo bat ematera joatea erabaki nuen: «Gutxienez —pentsatu nuen— nahiko ongi jasan du, jainkoak horrela nahi izateak kontsolatzen badu... Ohartu haiz, Maialen —bapatean ideia zoragarri bat bururatu zitzaidan—... lehenengo emakume feminista ezagutu huala?» Eta ideia horrekin bueltatxo, herrirako bidea hartu nuen nahi gabe, beharbada Peiori bisiatxo bat egiteko asmoz.



## Errepideak

Gutxi dira gure artean ospe handia lortzen duten toki-izenak. Mendi altuak eta ongi kokatuak dira gehienak, paraje ikusgarriak beste batzuk... Bada, hala ere, beste aukera bat, errepideren bat bertatik pasatzea. Hori da, hain zuzen ere, gaur egun 'mendatea' deitzen ohi dugun lekuetan gertatzen dena.

Horiei esker, elur-egunetan batez ere, toki-izen batzuk belarriratsen zaizkigu: *Etxegarate* Altsasu eta Gipuzkoaren artean, *Urbasa*, *Lizarrusti* Etxarri-Aranatzen, *Zugarrrate* edo *Zugargarate* Madotz eta Arakil lotzeko, *Otsondo* eta *Belate* Baztanen, Lapurdiko mugako *Lizuniaga* eta *Lizarieta*, *Izpegi* Baigorriara heltzeko, *Urkiaga* Eugititik Urepel-a joateko, *Ibañeta* Luzaide eta Orreaga bereiziz, *Laza* Uztarrozen, *Las Coronas* Nabaskozen, *Loiti* Irunberrira bidean, *El Carrascal*, *El Perdón*. Ate askok hurbileneko herririaren izena hartzen dute: Lizarraga, Azpirotz, Goñi, Girgillano, Etxauri, Markalain, Egozkue, Erro, Mezkitz, Larrau, Iso, Meano, Leitza, Uitz, Lerga, eta bakan batzuek izenik ere ez dute: Bidankoze, Abaurre, Bigotzari eta Oibarkoak.

Lanbidearen eraginagatik, dudarik gabe, aurrenekoak nahiago ditut, hots, toponimiaren izena hartzen duten atea. Ez dakit sobera praktikoa den komunikabideek errotutako zenbait izenen ordezkoak bilatzen aritea. Kasu batzuetan, haatik, garbi da herritarren izenak arrazoirik gabe baztertu eta despatxoren batetik izen errexak sortu zituztela.

Baina atera ditzagun mahai gainera izen polit batzuk. Azpirotzkoak elurra dakarkigu burura, gehiago seguruenik autobidea zabaldu ondoren, jakina denez, errepidea gorago joanen baita. Larraundarrek beti *Pagalleta* esan dute eta esaten diote inguruari, berrikeriaren gainetik oraindik ere. Leizatik Ezkurrara joateko *Usategieta* dago tartean, normalean Ezkurreko gaina deitua. Leizatik Tolosara joateko *San Anton* igo behar da (ez, karteletan esaten zen bezala, *Urto*). Markalaingoak ere izen garbia du *Ataburu*, bertakoek oraindik ere ahaztu ez duten izena. Gainerako kasuetan, errepideak bide berria urratu zuelako edo, herri baten izena erabiltzea ulgarria da. Etxauritik Gesalatzara joateko igaro beharreko lepoa *Lakinbe* zen baina errepide berriarekin bide zaharra ahaztu zen. *Matamachos* da Garde eta Anso lotzen duen portuaren izena. Gaurko izena errepide egiterakoan sortu zen, dirudienez maldaren pikoak mandoak lehertarazten zitueldako. Izen zaharra, berriz, *Pueta* zen eta bertan batzarreak egin ohi ziren Aragoi aldekoekin. Bidankoze eta Igari-ren artean izen ezagunak gabeko portua dugu, nahiz eta Bidankozeokoek *Portillo de Anaut* 'beterdanik' deitu.

MIKEL BELASKO



## Jenero Xumekoak


### Herioaren lehiatilan

Hainbeste gara lehiatila horretatik pasatzekoak, non Herioak pare bat hitz baino ezin digu dedikatu. Maiz xamar galdetzen digu nongoak garen, zenbat seme-alabarik dugun, ea pipatzen genuen. Bost axola zaio den-dena, baina, agi denez, guztiz bestelakoa da guk oroitezerako uzten dugun aurpegi errelatua.

JEREMIAS ERRO

## KAZKARROAN

### HITZ GURUTZATUAK



**EZKER-ESKUIA:** 1.- Ekialdeko erritarren janzkia. 2.- Dago. Irungo jaietako ospakizun nagusia. 3.- Eraso. Iridioa. 4.- Estalki. Greziako mendialdea. 5.- Har ezak! Nork pluralean. 6.- Azpian. Duintasunezko. 7.- ... egin, goitik ari. Perpausa. 8.- Zorroak. Ukatzeko. 9.- Lasterka.

**GOITIK-BEHERA:** 1.- Gipuzkoan, dut. Alegera. 2.- Karetan iharduten dutenak. 3.- Bat. Igelaren antzekoa. Errepikatuz, fruitu tropikala. 4.- Orea. Neurtu aditzaren infinitiboa. 5.- Burdinola. Sartu aditzaren infinitiboa. 6.- Gizon txiki. Ezagutzen du. 7.- Zakur. Hego Koreako hiriburua. Potasioa. 8.- Laguna. 9.- Modua. Iparraldean, naiz.



## Bizi Bizian



**B**ertsoek ez ezik koplek ere aberastasun handia dute gure herrialdean. Horietako asko eta asko jotamoldean kantatzen dira, Aragoatik sartu baitzen gurean jota. Hori joan den mendean izan zen, eta ondotik Erribera zabalean barrena aisa hedatu zen. Erdialdeko bazterretaz ere errazki nagusitu zen eta, are mendialdeko zenbait tokitan ere frankotan aditzen da.

## Kopletan kantari

E. DIEZ DE ULTZURRUN / IRUÑEA

Herrietan bazen kopletan abesteko ohitura, eta koplak segitu du euskara galdua, erdaraz noski, eta gehienetan jotamoldean. Dena den, euskaratik gaztelararako pasabide horretan, ez da bapateko aldaketa gogorrik izan. Konparazio batera, hara zer dioen Perico de Alejandriak, hots, zinezko iruñxeme xelebrea izan behar zuenak, duela 130 urte Iruñeari buruz argitaratu emandako gidaliburuan:

«Iruñea Nafarroan mintzatzen diren hiru hizkuntz zonaldeen zentrua da... Lehena gaztelera edo nazionala da... Bigarrena euskara da eta hirugarrena, berriz, hiriburuaren inguruko herrixketan mintzatzen dena, aipatutako bi hizkuntza horien nahasmentuaren ondorioz». Eta Iruñerriko mintzamolde horren enxemplutako, ondoko hau dakar:

*Joana Mari coge el chico  
pero no lagas kilikas  
lo pondras kukurubiko  
cuando quiera hacer txirrikas*

Honatx bertze adibide batzuk. Iruñean berean, mende hasieran, arras ezaguna zen kopla dugu honako hau:

*A las Pamplonas llegar  
en un banco sentar  
kilikis venir zinpi zanpa pegar*

Miguel Jabier Urmenetak bertze baten berri ematen digu bere memoriatan, Iruñea ondoko ibarretan galdutako hizkuntzaren hondarrez, guztiz penaturik, ari delarik:

*Ya se ha casao la Simona con un*

*mutil d'Ezkabarte y la muy zirikitona  
pues se ha casao sin darnos parte*

Eta, oraindik ere Iruñerrian adi daitekeen bat segidan:

*El alcalde de Zabaldika  
a la pella l'echa txungur,  
en cambio, l'echa birika  
el alcalde de Zizur*

Bada, Javier Irigaray Imaz jaunak ondoko hau hartu zion duela 20 bat urte Hipolito Mariñelarena iroztarrari:

*Karrikaluze Villavako  
tipulazorro Uherteko*

Ikusten denez, euskaratik zuzenean hartutako izen goitiak dira erdaraz emandako kopla horretarako baliatu zituztenak. Irotz Esteribarko hegoaldean dago, Iruñetik arras hurbil. Iruñerriko bazterrak utzi eta Kaleserrian ere antzeko prozesua gertatu da. Juan San Martin euskaltzainak duela 30 urte inguru bildutako koplak

dira lerrootara ekarritakoak:

*Zu oyan ta ni bortan  
biak gitutzu penatan.  
Xax bazinde bortareino,  
gur neutezu lurriareino*

(Zu ohian ta ni atean, biak penetan. Jeitsiko bazina atariraino, lurreraino makurtuko nintzateke, erreberentzian).

*Bar baduk erosi tupla  
ene bartzian baratxuri  
Paskoantonion ez dieusa  
erkintzala gezur-txuri*

(Tipula erosi nahi izanez gero, ene baratzean baratxuria bada, Paskual Antonioren ukapenak atera dezala gezur txuria). Aurreko horrek badu segida:

*Paskolantonion ez dieusa  
hire bortara eltu dun.  
Hire maxelian ekustra  
morros de sapo 'kun kun'*

(Paskual Antonioren ukapena



dean:

*Izan nintzen Beltzunzen  
kan ogi ederrik etzen  
gore apez muturbeltza  
asun biltan ari zen*

Kopla hori eta aunitzez ere gauza gehiago 'Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum' deitutako liburuan agertzen dira, Aingeru Irigarayk berak idatzita.

Otsagin ere koplak azaltzen dira, Kaleseritik Zaraitzura pasatuta. Venancio Contin zenari zor dizkiogu ondoko hauek. Amarengandik ikasiak, herriko dantzarien berri ematen du, Muskilda ermitara igotzen diren egunean. Koldo Cambra otsagiarrak Contin jaun zaharrari grabatu zizkion duela hiruzpalau urte:

*Otsagiko festak dira  
urrian zortzigarrenian,  
egun kortan jende guzia  
Muskildara igaten dra*

*... erdian dantzariak  
karrikan arkitzen dra  
herriko jende guzier  
egunonen ematra*

*Egunonak ematen die  
txistuaren sonua  
herri guzia ibiltzen da  
Muskildan pentsamendua*

*Muskildara igaten dira  
dantzariak eta erakuslia...*

Erakuslia delako hori Otsagiko dantzetako 'bobo' pertsonaia koloredun hori da, alegia. Otsagi aldeko koplari batek, hitzetik hortzera, egindako koplak iduri dute lerrootan paratutako horiek.





## Jesus Goñi

Bertsolaria

**A**meriketako bertsolari txapelduna Oronozkoa dugu. 1988an egin zen lehen txapelketa eta Jesus Goñi artzain joandakoak irabazi zuen. Orduetik hona

franko zabaldu da bertsolaritza eta euskaldunek San Frantzisko, Boise edo Wyoming estatuan antolatutako bestetan aritzen da kantari Goñi. Oro har, hamabost bat saio urtero, zenbait

# «Abioiz joaten gara kantatzera»

A. BARANDIARAN / ORONOZ

Duela 30 bat urte Amerikara joandakoa, artzain, bertsolari «denbora pasatzeko» lotu zitzaioela dio. Egun herrian dago, denboraldi batez, eta Donostian igandean izan zen bertso txapelketaren finalean bertsolari onak ikusi zituela dio, baina baita txarrak ere. «Batzuek gehiegi sarzen dute erdara, eta erdara sarzen duen bertsolaria ez da berezkoa». Hala ere, poza hartzen du hainbeste bertsolari ikustean, eta denen artean gustukoena Xalbador zuela azaldu du. «Hura bertsolari eta poeta zen, eta bera bezalako beste bat ateratzea oso zaila izango da».

**EGUNKARIA.**— Nola hasi zinen bertsoetan?

**JESUS GOÑI.**— Ameriketara joan aurretik banuen afizio handia, baina orduan ez zen bertso askorik kantatzen herri hauetan, beldur edo lotsarengatik. Ameriketara joan nintzen 17 urterekin, eta han denbora pasatzeko lotu nintzen bertsoari. Han hasi nintzen kantatzen, eta hiru urte t'erdia pasata etorri nintzen berriro. Orduan banuen segurantza neure buruarekin, bertsoak eta errimak egiteko, eta Mariano Izeta elizondorak aterarazi ninduen Erratzun, Mixel Xalbador eta Alkhatekin. Hori izan zen nire lehendabiziko plaza. Gero etorri ziren Arizkunera Lizaso, Garmendia eta beste batzuk, eta haiekin kantatu nuen. Xalbadorrekin ere herri askotan abestu genuen eta Mattinekin beste hainbeste alditan. Gero joan nintzen berriro Ameriketara, eta han oso ezaguna egin nintzen bertso kantatzen, baina bakarrik, lagunik ez nuen. Orduan Renoko Unibertsitatean zegoen Gorka Aulestia bizkaitarrak prestatu zuen elkarrengana biltzeko txapelketa bat. Egin genuen eta ez dakit zertaz, bai-

na nik irabazi nuen. Beste hirurak Jesus Arriaga erratzuarra, Jony Kurutxet ezterenzubitarra, eta Frank Txurruka bizkaitarra ziren.

**EGUNKARIA.**— Afizioa zure herrian sortu zitzaizula diozu. Bertso saioetan edo lagun arteko giroan?

**GOÑI.**— Aditu nituen lehenengo bertsolariak hemengo Fermin Aizpuruk ekarritakoak ziren: Uztapide, Mitxelena... Eta gu barnera sartzeko ez atrebitzen eta leihotik entzun genituen. Gogoan hartu nuen doinua eta errima, eta orduan piztu zitzaidan afizioa. Inguruan ez zegoen bertsolaririk. Trago batzuk eginda hasten ziren, baina segitzeko dezenterik ez. Kantu zaharrak, ordea, asko aditzen ziren.

**EGUNKARIA.**— Ameriketako txapelketak zertarako balio izan zuen?

**GOÑI.**— On handia egin zuen. Hasi ziren hango herriak deitzen festetarako, eta Kurutxet eta Arriagarekin hasi ginen herri herri. Gero agertu zen Wyoming oso baztertuta zegoen Gorritiko Martin Goikoetxea, eta orain aritzen gara asko elkarrekin.

**EGUNKARIA.**— Euskaldunak dauden herrietan soilik ibiltzen zarete?

**GOÑI.**— Ibiltzen gara San Frantziskon, Beckesfielden, Chinon, Renon, Boisen, Wyomingeko zenbait herritan... euskaldunen herri nagusietan. Oso urrun daude herri guzti hauek, eta abioiz joaten gara. Antolatzaileak arduratzen dira gauza guztiez: gastu guztiez, antolakuntzaz.

**EGUNKARIA.**— Jende asko biltzen da?

**GOÑI.**— Askok, batez beste hiru mila edo lau mila lagun biltzen gara. Iaz Elcon (Nevada) izan zen festarik handiena, urtero festa nagusia egiten baita. Eta hara azaldu ziren Saralegi hiru anaiak —aizkolariak eta harri-jasotzai-



Oronozko bere etxeraren aurrean.

ALBERTO BARANDIARAN

lea— eta horiekin batera guk kantatu genuen, eta estatu guztietatik etorri zen jendea. Orokorrean bost mila lagun bildu ginen, lau eguneko festan.

**EGUNKARIA.**— Eta hango jendeak ulertu egiten ditu bertsoak eta bertsolariak?

**GOÑI.**— Lehen bazegoen euskal irratarik, baina itxi zen, eta ez da euskal telebistarik, beraz amerikarrek ez dakite zer den. Baina herrietan oso ezagunak gara gu, eta toki guztietatik deitzen digute.

**EGUNKARIA.**— Ez al zaizu arra-

roa egiten bertsoetan aritzea Estatu Batuetan?

**GOÑI.**— Ez, han herri osoak baitira euskaldunak. Badira euskal ostatuak, jatetxeak eta abar, eta han biltzen da jendea, hemen bezala: jatera, musean jokatzera eta badira frontoiak. Beraz, euskal kultura euskaldunen artean da, eta bestak natural egiten dira. Badira han jaioak, hirugarren belaunaldikoak, eta euskaldunak dira, hemengo euskaldunak baino gehiago. Kantatzen dute euskaraz, eta euskara garbiz egiten dute.

**E**uskal kultura natural egiten da han. Badira han jaioak eta euskaldunak dira, hemengo euskaldunak baino gehiago».

**EGUNKARIA.**— Zenbat euskaldun dira orokorrean?

**GOÑI.**— Denak ez dakit, baina Boisen 12.000 inguru dira, Elcon ehundik gora, eta San Frantziskon ere asko. Batez beste, hiruna mila euskaldun dira herri horietan.

**EGUNKARIA.**— Artzainak oraindik gehienak?

**GOÑI.**— Ez da artzain euskaldunik gehiago. Hemendik ez dira joaten harat, eta denak herrian bizi dira. Artzainak orain Txile eta Perukoak dira. Euskaldunak egun beren negozioak dituzte.

**EGUNKARIA.**— Eta zu, hona itzultzeko asmoz, edo han geldituko zara?

**GOÑI.**— Han, erretiroa hartu arte. Gu ondo bizi gara han, arrunt eginak gara. Euskaldunak gure bestetan aritzen gara, hemen zuek bezala. Beraz, gustura. Gainera, hemen baino lan gehiago dago han eta euskaldunak estimatuak dira. Beren lanari kasu egiten diote, eta amerikarrek, al-diz, ez.

**EGUNKARIA.**— Beste herriekin zer moduz moldatzen zarete?

**GOÑI.**— Han arraza anitz bada: hegoamerikarrak, korearrak, japoniarrak, eta horiek gu bezalakoak dira, beren tokiak eta herriak dituzte, eta beren festak egiten dituzte. Baina ez da istilurik kulturen artean, bakoitzak berea egiten du. Mexikarrak eta hegoamerikarrak ez dira sobera ongi moldatzen, baina euskaldunak ez dira sartzen inon.

## MOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

